

2012ko EKAINAREN 12ko UDALBATZARRA
PLENO DE 12 DE JUNIO DE 2012

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea
(Beralandeta, Osoko bilkurak egiteko gaitu
den lokala).

Eguna: 2012-06-12

Ordua: 19:35

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
 (Beralandeta, lugar habilitado para realizar los Plenos).

Día: 12-06-2012

Hora: 19:35

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2012.eko maiatzaren 8an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 8 de mayo de 2012, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- EHIZA BARRUTIA ESLEITZEA: HERRIKO EHIZTARI ETA ARRANTZALE-EN ELKARTEA.

2.- ADJUDICACIÓN COTO DE CAZA: ASOCIACIÓN LOCAL DE CAZADORES Y PESCADORES.

Idazkariak azaldu ditu baldintza pleguan izan diren aldaketak eta espedienteak. Horren ondorez, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria explica las modificaciones realizadas en el pliego de condiciones y el resto del expediente. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ingurumenaren eta Uraren Zuzendari Nagusiak emandako maiatzaren 11ko 0544/2012 Ebazpenaren bidez, Berako tokiko ehiza barrutia eratzea baimendu zuen.

Por Resolución 0544/2012, de 11 de mayo, del Director General de Medio Ambiente y Agua, se ha autorizado la constitución del coto de caza local de Bera.

Udalak aurtengo otsailaren 16an eginiko Udaltzarrean ehiza barrutia herriko Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteari zuzenean esleitzea erabaki zuen.

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 16 de febrero de este año acordó que la adjudicación del coto de caza local sería por adjudicación directa a la Asociación local de Cazadores y Pescadores.

Lehen aipatutako Ingurumenaren eta Uraren Zuzendari Nagusiaren ebazpenari zein Nafarroako Ehiza eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legea eta hau garatzeko 48/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduari jarraikiz.

De acuerdo con la Resolución del Director General de Medio Ambiente y Agua y con lo establecido en la Ley 17/2005 de Caza y Pesca de Navarra y Decreto Foral 48/2007 que aprueba el Reglamento para su desarrollo.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Espedienteetan dagoen alboko dokumentuan jarritako ehiza aprobetxamendua esleitzeko baldintzak onestea.

1) Aprobar el pliego de condiciones particulares para la adjudicación del coto de caza de Bera que consta en el expediente.

2) Herriko Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteari Berako ehiza-barrutiko ehiza-ustiapena esleitzea, hauen oharren arabera:

2) Adjudicar el aprovechamiento cinegético del coto de caza de Bera a la Asociación Local de Cazadores y Pescadores, según las siguientes indicaciones:

2.1) Aipatutako ustiapena onartutako baldintza partikularren plegua zein Nafarroako Ehiza eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legea eta hau garatzeko 48/2007 Foru Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduari jarraikiz egin beharko da.

2.1) El citado aprovechamiento se realizará de conformidad con lo dispuesto en el pliego de condiciones particulares aprobado, en la Ley 17/2005 de Caza y Pesca de Navarra y en el Decreto Foral 48/2007 que aprueba el Reglamento para su desarrollo.

2.2) Epea: 2021-2022ko ehiza denborako bukaera arte.

2.2) Plazo: Hasta finalizar la campaña de caza de 2021-22.

2.3) Esleipen hau baldintzatua geldituko da Ehiza-Ordenaziorako Plana, elkarte esleipendunak egin behar duena, onartu

2.3) Esta adjudicación queda condicionada a la aprobación del correspondiente Plan de Ordenación Cinegético que deberá elaborar

arte.

- 3) Erabaki hau, onartu den baldintza partikularren plegua eta Ingurumenaren eta Uraren Zuzendari Nagusiak emandako 0544/ 2012 Ebazpenaren 4. puntuan eskatu dituen esleipendunaren datuak bidaltzea aipatu Zuzendari Nagusiari.
- 4) Baldintza partikularren pleguarekin batera erabaki hau esleipendunari jakinaraztea.

3.- BERAN IKUSKATUTAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN ENERGIA ERAGIMENA HOBETZEKO PLANA ONESTEA.

Alkateak gaia azaldu ondoren, aho batez, erabaki hau hartu dute:

Argiteria publikoan energia aurrezteko 2011-2012 kanpainako jarduketarako diru-laguntza eskatu zion Udalak Nafarroako Gobernuari kanpoko argiteri publikoaren energia-auditoretza egiteko, hain zuzen.

Horren ondorioz, Beran ikuskatutako argiteria publikoaren energia eragimena hobetzeko Plana egin da.

Beraz, lehen aipatu den diru-laguntzaren prozedurari jarraikiz,

ERABAKI DUTE:

- 1) Beran ikuskatutako argiteria publikoaren energia eragimena hobetzeko Plana onestea.
- 2) Nafarroako Gobernuaren Landa-Gara-

la asociación adjudicataria.

- 3) Remitir este acuerdo junto con el pliego de condiciones particulares y los datos de la adjudicataria solicitados en el 4. punto de la Resolución del Resolución del Director General de Medio Ambiente y Agua 0544/2012 a la citad Dirección General.
- 4) Notificar este acuerdo junto con el pliego de condiciones particulares a la adjudicataria.

3.- APROBACION DEL PLAN DE MEJORA ENERGETICA DEL ALUMBRADO PUBLICO AUDITADO EN BERA..

Tras la información del expediente dada por la Alcaldesa, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

El Ayuntamiento solicitó subvención al Gobierno de Navarra para actuaciones de ahorro energético en alumbrado público de la campaña 2011-2012, concretamente, para la realización de una auditoría energética del alumbrado público exterior.

Como consecuencia de lo anterior, se ha elaborado el Plan de mejora energética del alumbrado público auditado.

Por lo que, de conformidad con el procedimiento establecido para dicha subvención,

SE ACUERDA:

- 1) Aprobar el Plan de mejora energética del alumbrado público auditado en Bera.
- 2) Remitir este acuerdo al Departamento de

pen, Industria, enplegu eta Ingurumen Departamendura bidaltzea.

Desarrollo Rural, Industria, Empleo y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra.

4.- BERAKO ERAIKI BATZUETAN BIOMASA GALDARAK JARTZEKO 2012KO AURREKONTUAN OHIKO KANPOKO KREDITUEN HABILITATZEKO ESPEDIENTEA. HASIERA BATEZ ONESTEA (12/1 ESPEDIENTEA)

4.- EXPEDIENTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO EXTRAORDINARIO EN EL PRESUPUESTO 2012 PARA CALDERAS DE BIOMASA EN VARIOS EDIFICIOS DE BERA. APROBACIÓN INICIAL (EXPEDIENTE 1/12)

Alkateak eta Jon Abril zinegotziak azaldu dute proiektu honetan Nafarroako Gobernuaren eraikiak ere sartzen direnez honek aipatu duela diru-laguntzaren bidez egin beharrean hobe litzatekeela hitzarmenaren bidez egitea, beraz ez dela beharrezkoa, orain, espediente hau onartzea jakin arte nola izan behar den finantziarioa.

La Alcaldesa y el concejal Jon Abril explican que, como en este proyecto se incluyen edificios del Gobierno de Navarra, éste ha comunicado que en vez de financiarlo con subvención sería más apropiado hacer un convenio, por lo tanto no es necesario, ahora, la aprobación de este expediente hasta no saber como se hará la financiación.

Beraz, gaia erretiratu dute.

Por ello, se retira el asunto.

5.- 2012KO AURREKONTUAN KREDITUA HABILITATZEKO ESPEDIENTEA ONESTEA. KONTU-SAIL BATZUK (12/2 ESPEDIENTEA)

5.- APROBACIÓN DE HABILITACIÓN DE CRÉDITO EN EL PRESUPUESTO DE 2011. DIVERSAS PARTIDAS. (EXPEDIENTE 2/12).

Idazkaria azaldu du gaia eta ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria explica el asunto, tras lo cual, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Kontu-hartzaileak 2012ko ekainaren 1ean egindako txostena, non 2012rako onartu den aurrekontuan gastu batzuk finantzatzeko kontu-sailik ez dagoela, beraz, kredituak habilitatzeko espedientea onetsi behar dela adierazi duen.

Visto informe emitido por el Interventor de fecha 1 de junio de 2012 en el que manifiesta que en el presupuesto aprobado para 2012 no hay partida presupuestaria para financiar diversos gastos por lo que es preciso la aprobación de un expediente de modificación de créditos.

Kontuan hartuz, gastu hauek lortutako diru-laguntzekin finantzatzeko direla, espediente honetan diru-sarrerak sortutako kredituak izapidetu behar dira.

Teniendo en cuenta que estos gastos se financiarán con distintas subvenciones para financiar dichos gastos, en este expediente deben tramitarse créditos generados por ingresos.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 218. artikuluei eta indarrean dagoen aurrekontuaren 9. eta 13. exekuzio-oinarriari jarraikiz.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 218 de la Ley Foral de Haciendas Locales y en las bases de ejecución 9ª y 13ª del presupuesto en vigor.

ERABAKI DUTE:

1) Espedientean dauden diru-laguntzek sortutako kredituak onestea.

6.- NAFARROAN GOBERNUAK DUEN ORDEZKARITZAK JARRITAKO 214/2012 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ERREKURTSOAN DEFENDATZEKO ABOKATU ETA PROKURADORE IZENDATZEA.

Ondoko adierazpenak egin dira:

Jose M. Portu:

Errekurtsoz aparte erantzunaren bat prestatu behar da, ezin da inposaketa bete eta erantzun gabe utzi. Herriari ezagutzera eman, ekimenak

Juan Losa:

Galdetu du ea zenbat kostako den gastu hau, beste tokietan "buruarekin" banderak jartzen ari dira eta diru hau gizarte gastuetarako erabiltzen ahal zen, langabetuei laguntzeko.

Nekane Perezek erantzun dio:

Pozten da langabetuez kezkatzea baina bere alderdiari erraten ahal dio langabetuei kontratatzeko partida murriztu baitu.

Eta epaien gastuei buruz Nafarroako Gobernuak ere zenbat gastatu duen Euskal Herria iratiaren aferan, errotulazioen aferan etabar.

Santiago Alzuguren eta Isidora Aguirrek ere errespetua eskatu diote "buruarekin" esanda-koaz.

Denen artean sortu da eztabaida langabeziari buruz, Juan Losak egiten duena langabetuei laguntzeko eta, besteek diote, horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzua dagoela.

SE ACUERDA:

1) Aprobar los créditos generados por los ingresos de las distintas subvenciones según constan en este expediente.

6.- NOMBRAMIENTO DE ABOGADA Y PROCURADORA PARA DEFENSA EN RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO 214/2012 INTERPUESTO POR LA DELEGACIÓN DEL GOBIERNO EN NAVARRA.

Se realizan las siguientes intervenciones:

José M. Portu comenta que, a parte del recurso, habría que preparar una respuesta, no se puede cumplir con la imposición sin dar una respuesta. Hay que ponerlo en conocimiento de la población, distintas actividades.....

Juan Losa:

Pregunta cuánto va suponer este gasto, en otros sitios "con cabeza" están poniendo las banderas y este dinero se debería utilizar para gastos sociales, ayudar a la gente en paro....

Nekane Perez:

Se alegra de que le preocupe la gente en paro pero se lo puede decir a su partido que acaba de recortar la partida para contratar a personas en paro.

Y sobre los gastos del juicio le recuerda lo que gasta el Gobierno de Navarra en el asunto de la radio Euskal Herria, en los casos de rotulación, etc.

Santiago Alzuguren e Isidora Aguirre le piden respeto sobre las palabras "con cabeza"

Se generaliza la discusión sobre el paro, el concejal Juan Losa sobre lo que hace para ayudar a la gente en paro y el resto le señalan que para esa función está el Servicio Navarro

Horren ondotik, bozketa egin dute eta 10 aldeko botoekin (4 Aralar, 4 Bildu eta 2 EAJ/PNV) eta 1 aurka (UPN) honako erabaki hartu dute eta, baita ere, erantzunaren proposamena denen artean landuko dutenaren konpromisoa:

2012ko maiatzaren 4an Administrazioarekiko Auzietako 2. Epaitegiak Nafarroan Gobernuak duen Ordezkaritzak jarritako 214/2012 Administrazioarekiko Auzietako errekurtsuaren berri eman dio Udalari. Errekurtso honetan Españako bandera ez jartzeagatik Berako Udalak egin duen jarduera-gabetasun administratiboaren aurka jarri du Gobernuaren Ordezkaritzak.

Orain, errekurtso horren demandari erantzuna eman behar zaio, beraz, errekurtso honetan defendatu eta ordezkatzeko abokatu eta prokuradore izendatu egin behar du Udalak.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

- 1) **Lehen aipatutako errekurtsoan Udala defendatu eta ordezkatzeko ----- abokatu eta ----- prokuradore izendatzea.**
- 2) **Erabaki hau izendatutakoei jakinaraztea.**

7.- BARDEETAKO TIROKETA POLIGONOAREN KENTZEAREN ALDEKO MOZIOA: POLIGONOAREN KONTRAKO BATZARRAK.

Santiago Alzuguren zinegotziak mozioa irakurri du eta, aho batez, onartu dute honako testua izanik:

Azalpena:

Hainbat hamarkadatan, Nafarroako hain-

de Empleo.

Finalizado el debate, se realiza la votación resultando 10 votos a favor (4 Aralar, 4 Bildu y 2 EAJ/PNV) y 1 en contra (UPN), por lo que adoptan el siguiente acuerdo y manifiestan el compromiso de trabajar conjuntamente la propuesta de dar una respuesta:

El 4 de mayo de 2012 el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 comunicó al Ayuntamiento el recurso Contencioso-administrativo 214/2012 interpuesto por la Delegación del Gobierno en Navarra contra la inactividad administrativa del Ayuntamiento por la no colocación de la bandera de España.

Ahora, procede la contestación a la demanda de dicho recurso por lo que debe nombrarse abogada y procuradora para la defensa y representación del Ayuntamiento en el mismo.

Por ello, SE ACUERDA:

- 1) **Nombrar a la abogada ----- y a la procuradora ----- para la defensa y representación del Ayuntamiento en el recurso antes citado.**
- 2) **Notificar este acuerdo a las personas nombradas.**

7.- MOCIÓN POR EL DESMANTELAMIENTO DEL POLÍGONO DE TIRO DE LAS BARDENAS: ASAMBLEA ANTIPOLÍGONO.

El concejal Santiago Alzuguren lee la moción y, por unanimidad, la aprueban con el siguiente texto:

Exposición de motivos:

Durante tres décadas, diversos Ayuntamientos

bat Udalek eta Nafarroako Parlamentuak berak, akordioak adostu zituzten Bardeetako tiroketa poligonoa kentzea lortzera begira. Gure nafar lurretan dago 1951 urte-tik, eta alderdi guztietako nafar politikoen adierazpenak eragin ditu, 2001 urtean Bardeetan ez jarraitzea eskatu zen arte. Une hartan bertan, UPN-PP Espainiar Gobernuaren nahira makurtu ziren Bardeetako tiro poligonoari kokapen berria bilatzeko aldia hartzeko aitzakiarean, eta 2008 urtera arteko hitzarmena hartu zen. Urte horretatik aurrera tiroketa poligonoa beste leku batera eramateko konpromisoa hartu zen. Poligonoaren kontrako Batzarrean susmoa genuen hori atzeratzeko aitzakia hutsa zela. Nafarroako erakundeek Bardeetako tiroketa poligonoa kentzearen alde erakutsi duten ahuleziak indarra eman zion Aznar Gobernuari, gune hori Defentsarako toki garrantzitsu izendatzeko. Horixe izan zen Bardeetako Erkidegoko Presidenteak erabili zuen aitzakia, Defentsa Ministerioarekin 2008 urtean hitzarmen berria adosteko.

Iritsi zen 2008 urtea, eta gure susmoak egiaztatu ziren. Baina, UPN-PP bikotearekin batera, PSOE jarri zen, orduko hartan Espainiar Gobernuko agintaria, eta bere aurpegiarik faltsuena erakutsi zuen tiroketa poligonoaren inguruko jarrera aldatuz, oposiziotik gobernura pasatu zelako. Dena dela, UPN-PP taldea Defentsarekin hitzarmen berria adostearen aldeko agertu zen arren, eta boterera igo zen PSOEk lehenagoko kokapenetik urrundu zuen metamorfosisa sufritzen zuelarik, Tuterako Udala salbuespena zen eta bai mantentzen zuen talde politikoen batasuna Bardeetako Erkidegoari tiroketa poligonoaren jarraipenaren kontrako botoa adierazteko konpromisoan. Dena dela, une esanguratsu hura heltzeko azken egunetan, UPN eta PSNren exekutibek agindua eman zien udal taldeei, Bardeetan tiroketa

navarros y el Parlamento navarro, tomaron sendos acuerdos encaminados a lograr el desmantelamiento del polígono de tiro de las Bardenas. Su ubicación en nuestras tierras desde 1951, había motivado declaraciones de políticos navarros de todos los partidos, pidiendo ya en el 2001 que no continuase en las Bardenas. Ya en aquel momento, UPN-PP cedió a las pretensiones del Gobierno español con la excusa de darse un tiempo para buscar una nueva ubicación al polígono de tiro de las Bardenas, firmando un convenio hasta el 2008 con el firme compromiso de trasladar la instalación militar a otro lugar. La Asamblea Antipolígono ya sospechábamos que eso era una excusa dilatoria. La debilidad mostrada por las instituciones navarras en pro del desmantelamiento del polígono de tiro de las Bardenas, dio fuerzas al gobierno Aznar para declarar la zona como de interés preferente para la Defensa. Fue esa después la principal excusa argüida por el Presidente de la Comunidad de Bardenas para negociar con el Ministerio de Defensa un nuevo convenio en el 2008.

Llegó el 2008 y nuestras sospechas se vieron confirmadas. Pero al tándem UPN-PP se sumaba el PSOE, por entonces mandatario del Gobierno español, mostrando su cara más falsa al cambiar su posición respecto al polígono de tiro por el hecho de pasar de la oposición al gobierno. No obstante, a pesar de que UPN-PP se mostraba entonces favorable a un nuevo convenio con Defensa y de que el PSOE en el poder sufría una metamorfosis que le alejaba de sus posiciones de antaño, el Ayuntamiento de Tudela era la excepción y sí mantenía la unidad de todos los grupos políticos comprometiéndose a trasladar a la Comunidad de Bardenas su voto contrario a la continuidad del polígono de tiro. Sin embargo, víspera del momento decisivo, las ejecutivas de UPN y PSN dieron orden a sus grupos municipales de votar a favor de la continuidad del polígono de tiro en

poligonoaren jarraipenaren aldeko botoa eman zezaten. Taldeek burua makurtu eta agindua bete zuten eta Peralta izan zen Bardeetan tiroketa poligonoa jarraitzearen kontrako botoa eman zuen bakarra. Horrela ba, gainerako 18 udalek, Tuteran, Erronkari eta Salazar bailarak eta Oliba Monasterioa barne, historiarako Batzarrik tristeenean, baietza eman zieten Bardeetan benetako sua erabiltzeko praktikei eta milioi euroko gastu erraldoiei. Ezetza beraz, gastu horiek gai sozialetan edo zerbitzu publikoak hobetzeko erabiltzeari, baietza arazoei eta eragiten dizkiguten arriskuei, baietza tiroketa poligonoari, UPN eta PSNren aldeko botoei esker. Baimena eman diote tiroketa poligonoari beste 20 urtetan jarraitzeko, lurren jabego hutsa Bardeetako Erkidegoari ematearen truke, eta batez ere Ministerioak Erkidegoari eman dion diru konpentsazioaren truke.

Hitzarmen berria 2008ko abenduan izenpetu zen, eta 2009ko apirilean istripu berria gertatu zen bertan, F-18 erori zen Valtierra eta erriberako beste herrietatik hegaldi segundo gutxira. Gainera, urtero jarraitu dute aireko ejertzitoak Bardeetan egiten dituen entrenamendu eta armamentu proiektuak, urtero misil eta egiazko suarekin egiten diren "ekaintzak" barne. Sirio-Tormenta 2012 horretako aurtengo edizioan, prentsa bidez jakin izan genuenez, biztanleei ere ez zitzaizkien abisatu. Baina, abisuak egon direnean ere, pentsa ezinak dira tiroketa poligonoaren inguruan dauden herrietan bizi diren arriskuak. Aire Ejertzitoak bere WEB orrialdean erakusten duen txostenaren arabera "Aire Ejertzito honek urtean egiten duen ariketarik garrantzitsuenak da, erabiltzen diren hegazkin, baliabide eta instalazioengatik eta hartzen duen zabalera geografiko handiagatik.

SIRIO fase horretan, praktikan jartzen dira bake aldiaren aktibatzen ez diren Aire Defentsa planak. Fase honen helburua da Konbatuko Aire Agintearen trebatze maila han-

Bardenas. Los grupos cumplieron sumisamente el mandato, y tan solo Peralta votó contra el mantenimiento del polígono de tiro en las Bardenas. Así, los otros 18 Ayuntamientos congozantes, incluido Tudela, los valles de Roncal y Salazar, y el Monasterio de la Oliva, en una triste Asamblea para la historia, dijeron sí a los inmensos gastos militares de las maniobras con fuego real en Bardenas, no a que esos gastos se utilicen en fines sociales y mejora de servicios públicos, sí a las molestias y riesgos a los que nos exponen, sí al polígono de tiro, con los votos favorables de UPN y PSN, permitiendo que el polígono de tiro de las Bardenas continuase durante 20 años más a cambio de la cesión condicionada de su nuda propiedad a la Comunidad de Bardenas, y, sobre todo, a cambio de un sustancioso aumento de la compensación económica a la Comunidad por parte del Ministerio.

El nuevo Convenio se firmaba en diciembre de 2008 y ya en abril de 2009 tenía lugar un nuevo accidente en el que se estrellaba un F-18 a segundos de vuelo del casco urbano de Valtierra y otras poblaciones riberas. Además, cada año han continuado los miles de entrenamientos y pruebas de armamento que habitualmente realiza el ejército del aire en Bardenas, incluyendo las Tormentas anuales con uso de misiles y fuego real. En la edición del presente año de dicha operación militar Sirio-Tormenta 2012, según pudimos saber por la prensa, ni siquiera fue avisada la población. Pero incluso cuando ha habido avisos, son inimaginables los riesgos sufridos por las poblaciones circundantes al polígono de tiro. Según informe el ejército del aire en su página WEB, "Este ejercicio es el más importante que realiza el Ejército del Aire a lo largo del año, tanto por el número de aeronaves, recursos e instalaciones implicados, como por la extensión geográfica afectada.

Durante la fase SIRIO se ponen en práctica los planes de Defensa Aérea que no están activados

ditzea aginte eta kontrol arloetan, instalazio finkoetatik eta mugikorretatik. Era berean, Lurreko Ejertzitoko entitate eta sentso-reekiko eta Aire bidezko Defentsa Sisteman integratutako konektibotasuna ere praktikatzen da ... **TORMENTA** izeneko fase horretan etsaiaren aire boterearen kontrako eta lurreko indarrei babesa emateko misioak egiten dira, aire-lurra operazioak planifikatuta eta eginda, eta egiazko armamentua erabiltza. Fase honetan, tartean dauden unitateak Zaragozako Aire Basera abiatzen dira Bardeetako Tiroketa Poligonoan aire-lurra armamentu erreala erabiltzeko. Protagonismoa unitateek daukate, eta zehatzago esanda, maila taktikoan planeatzeko eta egiteko arloetako trebakuntzan...” Eta baten batek gerra jokora mugatzen direla pentsatzen badu, Aireko Ejertzitoko ematen duen informazioak honekin amaitzen du: “Entrenamendu honek Aireko Ejertzitokoaren barne makineriaren funtzionamendua mantentzea ahalbidetzen du, Gobernuak esku hartzea egoki jotzen duen momentuetan arintasun eta eraginkortasunez jarduteko, iaz Libiako krisiarekin gertatu zen moduan”.

Zein ote da “egiazko armamentu” hori? Zer arriskuren menpe gaude armamentu hori saiartzeko eta probatzen dutenean eta “etsaiaren aire boterearen kontrako misioak” egiten dituztenetan”? Zergatik ez dizkigu inork sufritzen ari garen “benetako arriskuak” azaltzen?

Beste aldetik ere, Hezkuntza, Osasuna, Mendekotasuna eta beste zerbitzu publikoek beren kalitatea galtzeko arriskuan dauden bitartean, botiken kopagoa legez arautzen diren bitartean, funtzionario eta pentsiodunek beren diru sarrerak eta bizitza kalitatea murriztuta ikusten dituztenean, hainbat pertsona langabezira erama-

en tiempo de paz. La finalidad de esta fase es aumentar el nivel de adiestramiento del Mando Aéreo de Combate en las áreas de mando y control, tanto desde instalaciones fijas como desplegables. También se ejercita la conectividad con entidades y sensores del Ejército de Tierra y la Armada integrados en el Sistema de Defensa Aérea... durante la fase **TORMENTA** se llevan a cabo misiones contra el poder aéreo enemigo y de apoyo a las fuerzas de superficie, mediante el planeamiento y ejecución de operaciones aire-tierra con empleo de armamento real. En esta fase, las unidades implicadas despliegan a la Base Aérea de Zaragoza para utilizar el armamento aire-suelo real en el Polígono de Bardenas. Aquí el protagonismo recae en las unidades, y más en concreto en el adiestramiento en las áreas de planeamiento y ejecución en el nivel táctico...” Y por si todavía hay alguien que piensa que aquí solo juegan a las guerras, la escueta información del ejército del aire concluye: “Este entrenamiento permite mantener engrasada la maquinaria interna del Ejército del Aire para que pueda reaccionar con la suficiente rapidez y eficacia en los momentos de crisis en los que el Gobierno estime necesario su intervención, como ocurrió el pasado año con la crisis de Libia.”

¿Cuál es ese “armamento real”? ¿Qué riesgos corremos cuando experimentan y prueban dicho armamento y cuando “llevan a cabo misiones contra el poder aéreo enemigo”? ¿Por qué nadie nos explica los “riesgos reales” que estamos sufriendo?

Por otra parte, mientras la Educación, la Sanidad, la ley de la Dependencia y otros servicios públicos ven peligrar su calidad, mientras se legislan copagos farmacéuticos, mientras funcionarios y pensionistas ven mermar sus ingresos y calidad de vida, mientras se envía al

ten diren bitartean, Zenbateko kostea dute gerra hegazkinak eta zenbateko kostea dute probatzen diren armek eta militarrek, hegazkinak eta armak leku batetik bestera eramateko garraioek? Noren kontra erabiliko dira?

Galdera gehiegi dira eta inortxok ez dizkigu erantzungo. Arriskuz eta iluntasunez beteriko urte gehiegi. Denbora luzeegia inork ondoan nahi ez duen instalazio militarrekin. Paradoxa gehiegi, Parke Naturalaren erdian eta Biosferaren Mundu Erreserbaren erdian dagoen tamaina horretako instalazio militarrekin. Noiz arte? Ez, hau ez da erretolika hutsa. Galdera da: Gu eragozteko mugitu ezik, noiz arte rraituko du tiroketa poligonoak Bardeak, kontzientziak eta lasaitasuna zulatzen?

BERAko UDAL OSOKO BILKURARI AURKEZTEN ZAIZKION AKORDIO PROPOSAMENAK :

- 1- Bardeetan tiroketa poligonoari jarraitpenaren kontrako adierazpen argia eta poligonoa kentzea exijitzea.**
- 2- Bardeetako Erkidegoari eta Defentsa Ministerioari haserrea adieraztea, inguruko herrietan "Sirio-Tormenta 2012" izenpean egiazko suarekin eta su simulaturrekin maniobrak egingo zirela iragarri ez delako.**
- 3- Defentsa Ministerioari, Sirio-Tormenta 2012 Operazioan erabilitako armamentuaren eta bere arrisku potentzialaren gaineko informazio zehaztua eskatzea.**
- 4- Defentsa Ministerioari Sirio-Tormenta 2012 Operazioaren koste ekonomiko osoaren inguruko informazio zehaztua eskatzea.**
- 5- Espainiar Gobernuari Sirio-Tormenta Operazio horiei amaiera ematea eskatzea, eta erabilitako kopuru hori helburu sozia-**

paro a tantas personas, ¿Cuánto cuestan los aviones de guerra, cuánto las armas que prueban, cuánto los traslados de los militares, aviones y armas? ¿Contra quiénes se dirigirán?

Demasiadas preguntas que nadie nos responderá. Demasiados años de riesgos y oscurantismo. Demasiado tiempo con una instalación militar que nadie quiere a su lado. Demasiadas paradojas con una instalación militar de ese calibre en medio de un Parque Natural y Reserva Mundial de la Biosfera. ¿Hasta cuándo? No es una pregunta retórica, es una pregunta: ¿hasta cuándo seguirá el polígono de tiro horadando las Bardenas, las conciencias, el sosiego, si no nos movilizamos para impedirlo?

PROPUESTAS DE ACUERDO AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BERA:

- 1- Mostrar la rotunda oposición a la continuidad del polígono de tiro en las Bardenas y exige su desmantelamiento.
- 2- Transmitir a la Comunidad de Bardenas y al Ministerio de Defensa el malestar por no haber avisado a las poblaciones vecinas de la realización de las maniobras de entrenamiento con fuego real y simulado denominadas Sirio-Tormenta 2012.
- 3- Solicitar al Ministerio de Defensa información detallada del armamento real utilizado en la Operación Sirio-Tormenta 2012, así como de su peligrosidad.
- 4- Solicitar al Ministerio de Defensa información detallada del coste económico, por todos sus conceptos, de la Operación Sirio-Tormenta 2012.
- 5- Solicitar al Gobierno Español que finalice la

letan erabiltzea eskatzea, Estatuko kutxan ekarpena eginez eta diru publikoetan murrizketak ekidinez.

6- Onartuta geratuko diren akordioak Defentsako Ministerioari, Bardeetako Erki-degoari eta komunikabideei helaraztea.

8.- “NAFARROA BIZIRIK” MOZIOA.

Jose M. Portuk irakurri du mozioa.

*Santiago Alzugurenek dio, funtsean mozioa-
rekin ados badaude ere, abstenitu behar dire-
la, historikoki, gauza gehiago gertatu direla
eta mozioan ez direla aipatu. Beste aldetik
ere, 6. puntuari dagokionez, bere ustez, jen-
deari libre utzi behar zaiola erabakitzen.*

